1.– Obrak onartutako proiektuaren arabera egin beharko dira, dagokionean eskatu eta baimentzen diren aldakuntzekin.

2.– Proiektua burutzeko, instalazioen titularrak honako erakunde hauek emandako baldintza teknikoak kontuan hartu beharko ditu:

3.– Instalazioak abiarazteko epea urtebetekoa izango da, ebazpen hau ematen denetik hasita.

4.– Instalazioen titularrak obrak amaitu izanaren berri emango dio Bizkaiko Lurralde Bulegoari, honek behin betiko azterketa gauzatu eta instalazioak abiarazteko akta egin dezan.

5.– Ebazpen hau udalen edo probintzia-mailako baimen edo lizentzien eta obrak egiteko beharrezkoak diren bestelakoen kalterik gabe eta hauetatik bereiz ematen da eta eskatzailea ez du horiek lortzeko betebeharretik salbuesten. Halaber, hirugarrenek izan litzaketen eskubideen kalterik gabe eta jabetza-eskubidea salbu utziz ematen da.

Ebazpen honek ez du administrazio bidea amaitzen eta, ondorioz, interesdunak gorako errekurtsoa aurkeztu ahal izango dio Energia, Antolamendu eta Industria Administrazioko Sailburuordetzari, hilabeteko epearen barruan ebazpen honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita, betiere azaroaren 26ko Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legea aldatzen duen 4/1999 Legean ezarritakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2001eko urriaren 22a.

Energia zuzendaria,
TXABER LEZAMIZ CONDE.

1.– Las obras deberán realizarse de acuerdo con el proyecto aprobado, con las variaciones que en su caso se soliciten y autoricen.

2.– El titular de las instalaciones tendrá en cuenta, para su ejecución el cumplimiento de los condicionados técnicos establecidos por los siguientes Organismos:

3.– El plazo de puesta en marcha será de un año contado a partir de la presente resolución.

4.– El titular de las instalaciones dará cuenta de la terminación de las obras a la Oficina Territorial de Bizkaia, a efectos de reconocimiento definitivo y extensión del acta de puesta en marcha.

5.– La presente resolución se otorga sin perjuicio e independientemente de las autorizaciones, licencias o permisos de competencia municipal, provincial y otros necesarios para la realización de las obras, no relevándose al peticionario de la obligación de obtener las mismas. Así mismo, se concede sin perjuicio de posibles derechos de terceros y dejando a salvo el derecho de propiedad.

Contra la presente resolución, que no pone fin a la vía administrativa, se podrá interponer Recurso de Alzada ante la Viceconsejería de Energía, Ordenación y Administración Industrial, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de la notificación de esta resolución, todo ello en virtud de lo establecido en la Ley 4/1999, de modificación de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

En Vitoria-Gasteiz, a 22 de octubre de 2001.

El Director de Energía,
TXABER LEZAMIZ CONDE.

## JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

### Zk-6982

AGINDUA, 2001eko azaroaren 12koa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Industri Ingeniarien Kontseiluko estatutuak onartzeko dena.

Abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaz Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutua onartu zen. Estatu horren 10.22 artikuluan ezartzen denez, Profesionalen Elkargoen eta Tituludun Lanbideen alorreko eskumena Euskal Autonomia Erkidegoari baino ez dagokio, Espainiako Konstituzioaren 36. eta 139. artikuluetan agindutakoa hautsi gabe, betiere.

## DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL

### N°-6982

ORDEN de 12 de noviembre de 2001, del Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social, por la que se aprueban los Estatutos del Consejo de Ingenieros Industriales del País Vasco.

El Estatuto de Autonomía para el País Vasco, aprobado por Ley Orgánica 3/1979 de 18 de diciembre, en el artículo 10.22, establece la competencia exclusiva de la Comunidad Autónoma del País Vasco en materia de Colegios Profesionales y el ejercicio de las profesiones tituladas, sin perjuicio en lo dispuesto en los Artículos. 36 y 139 de la Constitución Española.

Tituludun Lanbideei eta Profesionalen Elkargo eta Kontseiluei buruzko azaroaren 21eko 18/1997 Legea aipatu eskumenaren indarrez eman zen. Lege horren 33. eta 45. artikuluan ezartzen denez, elkargoen estatutuak eta horien aldaketak Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailari jakinaraziko zaizkio. Sail horrek, estatutuok legearen barruan daudela egiaztatu ondoren, behin betiko onartuko ditu, agindu baten bitartez. Agindua, estatutuekin batera, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da eta Tituludun Lanbideen Erregistroan inskribatuko.

Bilboko Aduanetako Agente eta Komisio-hartzeileen Elkargo Ofizialaren estatutuak legearen araberakoak direla egiaztatuta, Tituludun Lanbideei eta Profesionalen Elkargo eta Kontseiluei buruzko azaroaren 21eko 18/1997 Legeak ematen dizkidan eskumenak erabiliz, hau

EBATZI DUT:

*1. artikulua.–* Onarpena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Industri Ingeniarien Kontseiluko estatutuak onartzea.

*2. artikulua.–* Argitalpena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Industri Ingeniarien Kontseiluko estatutuak agindu honen eranskin gisa argitara daitezela agintzea.

*3. artikulua.–* Inskripzioa.

Euskal Autonomia Erkidegoko Industri Ingeniarien Kontseiluko estatutuak Tituludun Lanbideen Erregistroan inskriba daitezela agintzea, elkargoa formalki osatzen den unean.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA

Eraginkortasuna.

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2001eko azaroaren 12a .

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburua,
JOSEBA AZKARRAGA RODERO.

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO INDUSTRI INGENIARIEN KONTSEILUA

ESTATUTUAK

*1. artikulua.–* Nortasuna.

Euskal Autonomia Erkidegoko Industri Ingeniarien Kontseilua, aurrerantzean Kontseilua, zuzenbide publikoko korporazio profesionala da, nortasun juridiko pro-

La Ley 18/1997, de 21 de noviembre, de ejercicio de profesiones tituladas y de Colegios y Consejos Profesionales, dictada en virtud de la citada competencia, establece en sus artículos 33 y 45 que los estatutos colegiales y del Consejo, así como su reforma, serán comunicados al Departamento de Justicia, Trabajo y Seguridad Social del Gobierno Vasco para su aprobación definitiva, previa verificación de su legalidad, mediante Orden que será publicada en el Boletín Oficial del País Vasco conjuntamente con los estatutos e inscrita en el Registro de Profesiones Tituladas.

Verificada la adecuación a la legalidad de los Estatutos del Consejo de Ingenieros Industriales del País Vasco, en virtud de las competencias que me otorga la Ley 18/1997, de 21 de noviembre, de ejercicio de profesiones tituladas y de Colegios y Consejos Profesionales

RESUELVO:

*Artículo 1.–* Aprobación.

Aprobar los Estatutos del Consejo de Ingenieros Industriales del País Vasco.

*Artículo 2.–* Publicación.

Ordenar la publicación de los Estatutos del Consejo de Ingenieros Industriales del País Vasco como Anexo a la presente Orden.

*Artículo 3.–* Inscripción.

Ordenar la inscripción de los Estatutos del Consejo de Ingenieros Industriales del País Vasco en el Registro de Profesiones Tituladas en el momento en que éste sea constituido formalmente.

DISPOSICIÓN FINAL ÚNICA

Efectividad.

La presente Orden surtirá efectos a partir del día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 12 de noviembre de 2001.

El Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social,
JOSEBA AZKARRAGA RODERO

CONSEJO DE INGENIEROS INDUSTRIALES DEL PAÍS VASCO

ESTATUTOS

*Artículo 1.–* Personalidad.

El Consejo de Ingenieros Industriales del País Vasco, en adelante Consejo, es una corporación profesional de derecho público con personalidad jurídica propia y

pioa du eta erabateko ahalmen juridikoa du, publiko zein pribatua, bere xedeak betetzeko eta bere eginkizunak burutzeko.

*2. artikulua.–* Araudi ezargarria.

Kontseilua tituludun lanbideei eta profesionalen elkargo eta kontseiluei buruzko 18/1997 Legeak, azaroaren 21ekoak, eta Estatutuotan xedatutakoak arautzen dute. Hala ere, ezargarriak zaizkion goragoko mailako arauen menpe ere badago.

*3. artikulua.–* Lurralde-eremua

Kontseiluaren jarduteko lurralde eremua Euskal Autonomia Erkidegoa da, hain zuzen ere, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Industri Ingeniarien Elkargoen jardun-eremuen batura.

*4. artikulua.–* Helbidea.

Kontseiluaren helbidea lehendakari kargua betetzen duen dekanoaren Elkargoak duen helbidea da.

*5. artikulua.–* Xedeak.

Kontseilua da Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Industri Ingeniarien Elkargo Ofizialak koordinatzen dituen organoa. Beraz, bere azken xedea kideek beren lanbidea zuzen betetzen dutela zaintzea da, herritarren eskubideak bermatzeko, baita industri ingeniaritza Euskal Autonomia Erkidegoan eta goragoko beste eremuetan ordezkatzea eta defendatzea ere, gizartearen interesekin eta beharrizan orokorrekin bat.

*6. artikulua.–* Eginkizunak.

1.– Kontseiluaren eginkizunak dira:

a) Kontseiluaren eskumenen barruan industri ingeniaritzako jarduna arautzea eta elkargoek ondo funtzionatzen dutela zaintzea dago, eta horien ekintzen aurka jartzen diren errekurtsoak ebaztea ere bai.

b) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak dituen arau proiektuen berri ematea, ingeniari lanbideari, elkargoei eta Kontseiluari berari eragiten badiote.

c) Industri ingeniarien deontologia arauak egin eta aldatzea.

d) Elkargoen artean sortzen diren auziak arbitraje bidez ebaztea.

e) Diziplinazko ahala erabiltzea, indarrean dagoen araudiaren eta elkargoetako estatutuen arabera.

f) Kontseiluaren estatutuak onetsi eta aldatzea, baita elkargoen estatutuei eta horien aldaketei buruzko halabeharrezko txostenak ematea ere.

g) Kontseiluaren aurrekontua eta urteko kontuak onestea, eta Elkargo bakoitzak Kontseiluko gastuetarako eman beharreko kopurua modu zuzenean ezartzea.

plena capacidad jurídica, pública y privada, para el cumplimiento de sus fines y ejercicio de sus funciones.

*Artículo 2.–* Normativa aplicable.

El Consejo, sin perjuicio de las normas de superior rango que le sean de aplicación, se rige por la Ley 18/1997 de Ejercicio de Profesiones Tituladas y de Colegios y Consejos Profesionales de la Comunidad Autónoma del País Vasco y por lo dispuesto en los presentes Estatutos.

*Artículo 3.–* Ambito territorial.

El ámbito territorial de actuación es el de la Comunidad Autónoma del País Vasco y viene definido por el del conjunto de los Colegios Oficiales de Ingenieros Industriales de Alava, de Bizkaia y de Gipuzkoa.

*Artículo 4.–* Domicilio.

El Consejo tendrá su domicilio en el del Colegio a cuyo Decano corresponda la Presidencia del mismo.

*Artículo 5.–* Fines.

El Consejo es el órgano coordinador de los Colegios Oficiales de Ingenieros Industriales de Alava, de Bizkaia y de Gipuzkoa y como tal, tendrá como finalidad última la tutela del correcto ejercicio de la profesión como garantía de los derechos de los ciudadanos, la representación y defensa de la Ingeniería Industrial en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco y en otros ámbitos superiores, en congruencia con los intereses y necesidades generales de la Sociedad.

*Artículo 6.–* Funciones.

1.– Son funciones del Consejo:

a) Ordenar el ejercicio de la profesión de la Ingeniería Industrial en el ámbito de su competencia y velar por el correcto funcionamiento colegial, resolviendo los recursos que se interpongan contra los actos de los Colegios.

b) Informar los proyectos normativos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco que afecten a la profesión, a los Colegios y al propio Consejo.

c) Elaborar y modificar las normas deontológicas de la profesión de Ingeniero Industrial.

d) Dirimir en vía arbitral los conflictos que surjan entre los Colegios.

e) Ejercer la facultad disciplinaria de acuerdo con lo dispuesto en la normativa vigente y en los Estatutos de los Colegios.

f) Aprobar y modificar los Estatutos del propio Consejo, así como dictar los preceptivos informes sobre los Estatutos de los Colegios y sus reformas.

g) Aprobar el Presupuesto y las Cuentas anuales del Consejo fijando equitativamente la participación de los Colegios en los gastos del mismo.

h) Elkargoekin elkarlanean aritzea, lan, prestakuntza, laguntza, kultura, eta lankidetza jarduerak antolatzeko, baita industri ingeniaritzarako komenigarria izan daitekeen antzeko beste edozein jarduera antolatzeko ere. Horretarako, Kontseiluak erakundeak edo zerbitzuak sortu eta bultzatu ahal izango ditu, eta Administrazioarekin zein erakundeekin itunak edo hitzarmenak izenpetu ere bai.

i) Gobernu organoek erabakitzen duten beste edozein eginkizun, beti ere industri ingeniaritzarekin zerikusia badute eta lege xedapenen aurka ez badaude.

2.– Kontseiluak, gainera, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren berezko eginkizunak bete ditzake, baita foru eta toki administrazioenak ere, hala erabakitzen badute administraziootako organo eskudunek, Legeak ezarritako baldintzekin.

*7. artikulua.–* Antolamendua.

Kontseiluaren gobernu organoak ondokoak dira:

a) Osoko organoa eta gobernurakoa: Batza.

b) Lehendakaritza organoa: lehendakaria.

c) Administrazio organoa: idazkaria.

Kontseiluko Batzak behar beste batzorde era dezake Kontseiluaren jardun hoberako egokiak direla uste badu. Kontseiluak beti izango du batzordeok hartutako erabakien erantzukizuna.

*8. artikulua.–* Kontseiluaren Batza.

1.– Batza ondoko kideek eratuko dute:

a) Arabako Elkargoa ordezkatzeko, bertako dekanoa eta Gobernu batzordeak izendatutako elkargokide bi.

b) Bizkaiko Elkargoa ordezkatzeko, bertako dekanoa eta Gobernu batzordeak izendatutako elkargokide bi.

c) Gipuzkoako Elkargoa ordezkatzeko, bertako dekanoa eta Gobernu batzordeak izendatutako elkargokide bi.

Elkargo bakoitzeko gobernu batzordeek ordezkariak izendatuko dituzte Kontseiluaren Batzarako. Ordezkariok, edozein unetan, berretsi edo ordezkatu egin daitezke, bilera jakin baterako ere bai, kasuan kasuko Elkargoko Gobernu batzordearen erabaki batez.

2.– Batzako lehendakaria eta idazkaria Kontseiluko lehendakaria eta idazkaria dira, hurrenez hurren.

3.– Batzaren eginkizunak dira estatutuotan berariaz beste gobernu organo bati esleitu ez zaizkion guztiak.

4.– Kontseiluko Batzak ahalmena du estatutuok garatzeko beharrezkoak diren interpretazio edo argibide xedapen guztiak emateko.

h) Organizar en colaboración con los Colegios actividades de carácter profesional, formativo, asistencial, cultural, de cooperación y otros análogos que se consideren convenientes para la Ingeniería Industrial. A tal fin podrá crear y fomentar entes o servicios y establecer conciertos o acuerdos con la Administración, Instituciones y Entidades.

i) Cualesquiera otras funciones que acuerden sus órganos de gobierno siempre que guarden relación con la Ingeniería Industrial y no se opongan a las disposiciones legales.

2.– El Consejo podrá ejercer, además, funciones propias de la Administración Pública Autonómica, Foral y Local del País Vasco cuando así se disponga por los órganos competentes de las respectivas Administraciones en los términos establecidos en la Ley.

*Artículo 7.–* Organización.

Los órganos de Gobierno del Consejo serán:

a) Organo Plenario y de Gobierno: El Pleno.

b) Organo Presidencial: El Presidente.

c) Organo Administrativo: El Secretario.

El Pleno del Consejo podrá constituir cuantas Comisiones estime convenientes para el mejor desarrollo de las actividades del Consejo, asumiendo en todo caso la responsabilidad de los acuerdos que éstas adopten.

*Artículo 8.–* El Pleno del Consejo.

1.– Serán miembros del Pleno del Consejo las siguientes personas:

a) Representando al Colegio de Alava, su Decano y dos colegiados nombrados por su Junta de Gobierno.

b) Representando al Colegio de Bizkaia, su Decano y dos colegiados nombrados por su Junta de Gobierno.

c) Representando al Colegio de Gipuzkoa, su Decano y dos colegiados nombrados por su Junta de Gobierno.

Las Juntas de Gobierno de cada uno de los Colegios designarán sus representantes en el Pleno del Consejo pudiendo éstos, en todo momento, ser confirmados o sustituidos, incluso para una reunión concreta, mediante acuerdo de la Junta de Gobierno de su Colegio.

2.– Ostentarán la Presidencia y Secretaría del Pleno, quienes lo sean del Consejo.

3.– Corresponden al Pleno, todas las funciones del Consejo que no se hayan atribuido expresamente a otro órgano del mismo en los presentes Estatutos.

4.– Queda facultado el Pleno del Consejo para adoptar cuantas disposiciones interpretativas o aclaratorias resulten necesarias para el desarrollo de los presentes Estatutos.

*9. Artikulua.–* Lehendakaria.

1.– Lehendakaria Kontseiluaren ordezkari ofiziala da eta Kontseiluko bileren lehendakaria ere izango da.

Lehendakariak, bere izenpearekin, bileretako aktak baimenduko ditu, akordioak egikaritu eta betearaziko ditu, eta ordainketak aginduko ditu.

Lehendakariak bere eginkizunak eta Kontseiluaren ordezkaritza ofiziala lehendakariordeari eskuordetu diezazkioke, edo horrelakorik ez badago, Kontseiluko beste edozein kideri, baina ordezkaritza hori gai zehatz baterako izan behar da.

2.– Kontseiluko Lehendakaritza elkargoetako dekanoek beteko dute, txandaka eta urte biko agintaldietan. Lehen lehendakaria elkargokide gehien duen Elkargoari dagokio.

Hala ere, lehendakaria ordezkatu behar denean Kontseiluko Batzak aho batez hala erabakitzen badu, lehendakarirako beste elkargo bietako dekanoa aukeratu daiteke, txandaren arabera lehendakari izan behar zuena aukeratu beharrean. Azken horrek bere urte biko agintaldia bukatutakoan, hurrengo lehendakaria aurretik txandaren arabera Lehendakaritza bete behar zuen Elkargoko dekanoa izango da.

Edozelan ere, dekano batek gehienez ere lau urte kontsekutibotan bete ahal izango du Kontseiluko Lehendakaritza.

Lehendakaria ordezkatuko duen lehendakariorde bat ere egongo da, lehendakaria ez dagoenerako edo edozein arrazoirengatik bere kargua bete ezin duenerako. Lehendakariordea hurrengo txandan lehendakari izan behar duen dekanoa da.

Lehendakaritza betetzen ez bada, lehendakariordeak beteko ditu lehendakariaren eginkizunak estatutuek ezartzen dutenaren arabera postu hori bete arte.

*10. artikulua.–* Idazkaria.

1.– Kontseiluko administrazio organoa Idazkaritza da.

2.– Idazkariari dagokio:

a) Kontseiluko langileen buruzagitza, langilerik egonez gero, eta Kontseiluko ekonomia eta administrazio zerbitzuak antolatzea eta zuzentzea.

b) Batzetako aktak egitea eta dagozkion ziurtagiriak ematea, lehendakariaren oniritziarekin.

c) Lehendakariak agindutako bileren deiak egitea.

d) Kontseiluaren aurrekontua eta urteko kontuak egitea, kobru eta ordainketak egitea, eta horiek kontabilitatean artez jasotzea.

3.– Lehendakaria aukeratzen denean, eta bi urterako, Batzako kideek Kontseiluko idazkaria hautatuko dute kide guztien artetik.

*Artículo 9.–* El Presidente.

1.– Corresponde al Presidente la representación oficial del Consejo y la presidencia de las reuniones del mismo.

El Presidente autorizará con su firma las Actas de las reuniones, la ejecución y cumplimiento de los acuerdos y ordenará los pagos.

El Presidente podrá delegar sus funciones de presidencia y representación oficial del Consejo en el Vicepresidente o, en ausencia de éste, en cualquier otro miembro del Consejo, pero tal representación deberá ser para un asunto concreto.

2.– La presidencia corresponderá de modo rotatorio y por períodos de dos años a los Decanos de los Colegios, en orden de mayor a menor número de colegiados.

No obstante, en el momento que corresponda el relevo en la Presidencia, el Pleno del Consejo por unanimidad podrá elegir como Presidente a otro de los Decanos distinto al que le correspondería según el turno rotatorio. Al finalizar éste los dos años de su mandato, le sucederá en la Presidencia el Decano del Colegio al que le hubiese correspondido de seguir el modo rotatorio.

En cualquier caso, un Presidente no podrá estar más de 4 años consecutivos ostentando la Presidencia.

De igual manera habrá un Vicepresidente que sustituirá al Presidente, por ausencia o cualquier causa que le impida el ejercicio de su cargo. La Vicepresidencia corresponderá al Decano que deba entrar como Presidente en sustitución del que ostente el cargo.

En caso de quedar vacante la Presidencia, el Vicepresidente asumirá sus funciones hasta que estatutariamente se cubra el cargo.

*Artículo 10.–* El Secretario.

1.– El Organo Administrativo del Consejo es la Secretaría.

2.– Corresponde al Secretario:

a) La jefatura del personal del Consejo, si lo hubiera, y la organización y dirección de los servicios económico-administrativos del Consejo.

b) La elaboración de las Actas de las reuniones del Pleno y la expedición de las correspondientes Certificaciones con el V.º B.º del Presidente.

c) La Convocatoria de las reuniones que ordene el Presidente.

d) La redacción del Presupuesto y Cuentas anuales del Consejo y la realización de los cobros y pagos, cuidando de la correcta contabilidad de los mismos.

3.– Coincidiendo con la elección del Presidente del Consejo y también por un periodo de dos años, los miembros del Pleno elegirán de entre ellos, al Secretario del Consejo.

Era berean, Batzak kideen artetik idazkariorde bat hautatuko du idazkaria ordezkatzeko, idazkaria ez dagoenerako edo edozein arrazoirengatik bere kargua bete ezin duenerako.

Idazkaritza betetzen ez bada, idazkariordeak beteko ditu idazkariaren eginkizunak estatutuek ezartzen dutenaren arabera postu hori bete arte.

*11. artikulua.–* Funtzionamendua.

1.– Kontseiluko Batza nahitaez gutxienez hiruhilabeterik behin bildu behar da, edo lehendakariak egoki deritzonean, edo Elkargoetako Gobernu batzordeetako batek hala eskatzen duenean.

2.– Idazkariak Batza baino 7 egun lehenago deituko ditu kideak —postaz, faxez, posta elektronikoz edo beste edozein jakinarazpen modu eraginkorren bidez—, eta deialdiarekin batera eztabaidatuko den gaien zerrenda igorriko die.

Epe hori murriztu egin daiteke lehendakariak bilera presazkoa dela erabakitzen badu, eta hala dela egiaztatu behar du bileran bertan. Hurrengo bileran Batzak presazko izatea arrazoi gabetzat jotzen badu, hartutako akordioak ezeztagarriak izango dira.

3.– Gai zerrendan elkargoetako ordezkariek aurrerapen nahikoarekin proposatzen dituzten gai guztiak agertu behar dira.

Ezin da gai-zerrendan agertzen ez den gai bati buruzko erabakirik hartu. Salbuespena da organoa lehen deialdian biltzen bada eta bertaratutakoek aho batez erabakitzen badute gairen bat gai zerrendan presazko izaerarekin sartzea.

4.– Kontseiluaren Batza lehen deialdian eratutzat joko da bertako kideen gehiengoa bertaratu bada, eta bigarren deialdian eratutzat joko da lehena baino ordu erdi beranduago, bertaratutakoen kopurua edozein izanda ere. Batean zein bestean, bertaratutakoen artean lehendakaria edo lehendakariordea egon behar da eta, gutxienez, Elkargo bakoitzeko ordezkari bana.

5.– Erabakiak emandako botoen gehiengo soilaz hartuko dira. Berdinketarik egonez gero, lehendakariak desegingo du bere kalitateko botoaren bidez.

Kontseiluko estatutuak eta horien aldaketak onesteko, zein diziplinazko auzien gaineko erabakiak hartzeko Batzako kideen botoen gehiengo osoa behar da, eta Elkargo bakoitzeko ordezkaritzetako kideren baten aldeko botoa ere bai.

*12. artikulua.–* Kideen eskubide eta betebeharrak.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Industri Ingeniarien Elkargo Ofizialak, Kontseiluko kide direnez gero, ondoko eskubideak dituzte:

a) Kontseiluan parte hartze aktiboa izatea, ahots eta botoarekin, dagozkion organoen bidez, erabaki, ekimen eta jarduera guztietan.

De igual manera, el Pleno elegirá de entre sus miembros a un Vicesecretario que suplirá al Secretario por ausencia o cualquier causa que le impida el ejercicio de su cargo.

En caso de quedar vacante la Secretaría, el Vicesecretario asumirá sus funciones hasta que estatutariamente se cubra el cargo.

*Artículo 11.–* Funcionamiento.

1.– El Pleno del Consejo se reunirá preceptivamente, al menos una vez cada trimestre y cuando lo estime conveniente su Presidente o a petición de alguna de las Juntas de Gobierno de los Colegios.

2.– El Secretario convocará -por escrito remitido por correo, fax, correo electrónico o cualquier otro medio de comunicación eficaz-, a los miembros del Pleno con antelación mínima de 7 días, remitiendo el Orden del Día comprensivo de los asuntos que hayan de tratarse.

Este plazo podrá reducirse cuando el Presidente determine que la sesión tiene carácter de urgencia, lo que habrá de justificarse en la propia reunión. Si en la sesión siguiente, el Pleno estimase injustificada la decisión, los acuerdos adoptados serán revocables.

3.– En el Orden del Día figurarán cuantos asuntos sean propuestos con antelación suficiente por los representantes de los Colegios.

No podrá adoptarse acuerdo sobre asunto que no figure en el Orden del Día, excepto que, reunido el órgano en primera convocatoria, los asistentes decidan por unanimidad incluir con carácter de urgencia algún asunto en el orden del día.

4.– El Pleno del Consejo quedará constituido en primera convocatoria con la asistencia de la mayoría de los miembros del mismo y en segunda convocatoria, media hora después de la primera, con cualquiera que fuera el número de concurrentes. En ambos casos entre los asistentes deberá encontrarse el Presidente o Vicepresidente y un representante, al menos, de cada uno de los Colegios.

5.– Los acuerdos se adoptarán por mayoría simple de votos emitidos, pudiendo en caso de empate decidir el Presidente con su voto de calidad.

Tanto para la aprobación de los Estatutos del Consejo y sus modificaciones como en materia disciplinaria, los acuerdos se adoptarán por mayoría absoluta de los componentes del Pleno siendo necesario además el voto favorable de algún miembro de la representación de cada Colegio.

*Artículo 12.–* Derechos y deberes de los miembros.

1.– Los Colegios Oficiales de Ingenieros Industriales del País Vasco, como miembros del Consejo ostentan los siguientes derechos:

a) Participar activamente en el Consejo, con voz y voto, a través de sus respectivos órganos, en todas sus decisiones, iniciativas y actividades.

b) Elkargo bakoitzaren autonomia gordetzea bere lurralde eta eremuko gai, arazo eta eskumen esklusiboetan.

c) Kontseiluak elkargoak defendatu behar ditu, edozein instantziaren edo administrazioren aurrean, lanbideari eragiten dion edozein gaitan, dagokion Elkargoak Kontseiluari hala eskatuz gero.

d) Kontseiluaren kontuen zein finantza eta ondare egoerari buruzko informazioa jasotzea.

e) Estatutuak aldatzeko proposamenen berri jasotzea, Kontseiluak horiek eztabaidatu eta erabaki aurretik.

f) Kontseilua disolbatzeko proposamenaren berri ere jasotzea, baita hori likidatzeko faseena ere, Kontseiluaren ondasun eta eskubideen gertatuko dena barne.

g) Kontseiluak, estatutuon arabera, hasi eta ebazten dituen diziplina prozeduren berri jasotzea.

h) Kontseiluak eman dezakeen informazio eta zerbitzu guztiak jasotzea: lege, zerga eta lan aholkularitza, lanpoltsa, prestakuntza iraunkorra, etab.

i) Estatutuotatik ondorioztatzen diren beste eskubide edo eskumen guztiak eta, orokorrean, ezargarria den legediak ematen dituenak.

2.– Kontseilua osatzen duten elkargo ofizialen betebeharrak dira:

a) Kontseiluari elkargoen jardueren, egoeren, ekintzen edo ebazpenen berri ematea, beste elkargoek horiek ezagutzea komeni bada.

b) Elkargokideei Kontseiluaren ebazpenen, erabakien edo arauen berri ematea, kideei eragiten badiete edo interesgarriak badira.

c) Kontseiluko organoen ekitaldietara eta bileretara joatea, modu erregularrean eta unean unean, elkargoen ordezkarien bidez.

d) Kontseiluan bertan erabakitzen denaren arabera Kontseiluaren aurrekontua betetzeko laguntzea, eta horretarako ezartzen diren ohiko kuotak edo ez ohiko kopuruak ordaintzea.

e) Kontseiluaren eskura jartzea bere eginkizunak betetzeko behar dituen giza zein material baliabideak. Elkargoak hala egingo du txandaren arabera Kontseiluaren egoitza izatea dagokionean.

f) Kontseiluari lanbidearen defentsarako, duintasunerako, berau indartzeko eta horren intereserako behar dituen laguntza edo babes guztiak ematea.

*13. artikulua.*– Ekonomi erregimena.

1.– Kontseiluaren ekonomi baliabideak urteko aurrekontua betetzeko behar dituenak dira. Aurrekontua estatutuotan jasotzen diren xedeei jarraiki egingo da. Ekonomi baliabideak hiru jatorri izan ditzakete: Elkar-

b) Mantener su autonomía en cuanto a las materias, asuntos y competencias exclusivas de su territorio y ámbito.

c) Ser representados y defendidos por el propio Consejo ante cualquier instancia, administración o entidad en todo aquello que afecte a la profesión, en cuanto el Colegio en cuestión así lo requiera del Consejo.

d) Ser informados sobre el estado de cuentas y financiero-patrimonial del Consejo.

e) Ser informados de las propuestas de Modificación de Estatutos, previamente a su debate y aprobación por el Consejo.

f) Ser informados, igualmente, de la propuesta de Disolución del Consejo, y de las fases de su liquidación, incluido el destino de sus bienes y derechos.

g) Ser informados de los procedimientos disciplinarios que, con arreglo a los presentes Estatutos, incoen y resuelvan los órganos del Consejo.

h) Obtener del Consejo cuanta información y servicios pudiera éste facilitar: asesoría jurídica, fiscal, laboral, bolsa de trabajo, formación permanente, etc.

i) Cuantos otros derechos o facultades se deriven de los presentes Estatutos y, en general, de la legislación aplicable.

2.– Son obligaciones de los Colegios Oficiales que integran el Consejo:

a) Dar cuenta al Consejo de todas aquellas actuaciones, circunstancias, hechos o resoluciones de las que fuera conveniente informar a los demás Colegios integrantes.

b) Comunicar y tener informados a sus respectivos colegiados de cuantas resoluciones, acuerdos, o normas emanadas del Consejo les afectasen o fueran de interés.

c) Acudir, regular y puntualmente, a los actos y reuniones de los órganos del Consejo a través de sus representantes.

d) Contribuir, según se determine en el seno del Consejo al sostenimiento del presupuesto del mismo, satisfaciendo las cuotas ordinarias o las derramas extraordinarias que al respecto se establezcan.

e) Poner a disposición del Consejo los medios humanos y materiales que precise para llevar a cabo sus funciones cuando, de acuerdo con el turno rotativo previsto, les corresponda constituirse como Sede del Consejo.

f) Prestar al Consejo cuantos apoyos o colaboraciones precisase para la defensa, dignidad, reforzamiento e interés de la profesión.

***Artículo 13.***– Régimen económico.

1.– Los recursos económicos del Consejo serán los necesarios para cubrir su presupuesto anual, elaborado de acuerdo con sus fines estatutarios y procederán de las aportaciones de los Colegios, de las subvenciones e in-

goen ekarpenak, Kontseiluak beren jardueragatik jasotzen dituen dirulaguntza eta sarrerak, eta bere jabetzako ondasun eta eskubideen fruituak.

2.– Elkargoen ekarpenak urtetik urtera zehaztuko ditu Kontseiluaren Batzak bere aurrekontuan, eta horretarako kontuan hartuko du Elkargo bakoitzeko elkargokide kopurua.

3.– Elkargoren batek ez baditu betetzen estatutuon arabera Kontseiluarekin dituen ekonomi betebeharrak, birritan eskatuko zaio gutun ziurtatu bidez. Elkargo bakoitzaren eskubideak erabat erabiltzeko derrigorrezkoa da ekonomi betebeharrak egunean izatea.

4.– Idazkariak urtero kontuen berri emango dio Kontseiluaren Batzari, horrek onar ditzan. Batzak hiru kide izendatuko ditu kontuen ikuskaritza egiteko eta dagokion txostena emateko. Hala ere, zeregin hori kontuen ikuskaritza egiteko ahalmena duen erakunde bati ere eslei diezaioke.

*14. artikulua.–* Deontologia arauak.

Kontseiluak industri ingeniaritzaren deontologia-arauak egingo ditu, bere eginkizunetako bat da eta. Arauok, indarrean sartu aurretik, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako elkargo ofizialen onespena behar dute, eta behin hori jasota, elkargoetako araudian sartuko dira.

*15. artikulua.–* Diziplina araudia.

1.– Eragindako pertsona elkargoetako baten Gobernu batzordeko edo Kontseiluaren Batzako kidea bada, Kontseiluari dagokio diziplinazko ahala.

2.– Kontseiluaren Batzak prozedura bere kabuz edo Elkargoetako baten Gobernu batzordeak eskatuta hasiko du.

3.– Zehatzeko prozeduraren instrukzioaren epeak eta faseak zehazteko, eragindako pertsona zein Elkargotako kidea den begiratuko da, epe eta faseok bere Elkargoko estatutuek zehazten dituztenak izango baitira.

*16. artikulua.–* Errekurtsoak.

1.– Kontseiluak berau osatzen duten elkargoen ekintza eta ebazpenen aurka jartzen diren errekurtsoen berri izan behar du, eta horiek ebatziko ditu. Ebazpenerako, dagokionean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legea, azaroaren 26koa, ezarriko da, baita gai horretan ezargarriak diren legezko edo erregelamenduzko arauak ere.

2.– Administrazio-zuzenbideari lotuta dauden Kontseiluaren ekintzak eta ebazpenak administrazioarekiko auzibide aurreko administrazio bidea agortzen dute, jurisdikzio hori arautzen duen Legean xedatutakoaren arabera.

gresos que perciba por su actividad y del producto de bienes y derechos de su propiedad.

2.– Las aportaciones de los Colegios serán fijadas anualmente por el Pleno del Consejo en su presupuesto, teniendo en cuenta el número de colegiados de cada uno de ellos.

3.– En caso de incumplimiento por algún Colegio de las obligaciones económicas con el Consejo contempladas en estos Estatutos, se llevarán a cabo dos requerimientos mediante carta certificada. Para el pleno ejercicio de los derechos de cada Colegio, será necesario estar al corriente del pago de sus obligaciones económicas.

4.– El Secretario efectuará anualmente la rendición de cuentas al Pleno del Consejo para su aprobación. El Pleno nombrará a tres de sus miembros para proceder a la auditoría de las Cuentas y evacuar el oportuno informe pudiendo también encomendar esta labor a una entidad facultada para ello.

*Artículo 14.–* Normas deontológicas.

En el ejercicio de sus funciones, el Consejo elaborará las Normas Deontológicas de la Ingeniería Industrial que, previamente a su entrada en vigor, requerirán la aprobación de los Colegios Oficiales de Alava, de Bizkaia y de Gipuzkoa, incorporándose desde ese momento a la normativa de los propios Colegios.

*Artículo 15.–* Régimen Disciplinario.

1.– Corresponde al Consejo ejercer la potestad disciplinaria cuando la persona afectada sea miembro de la Junta de Gobierno de uno de los Colegios o del Pleno del Consejo.

2.– El Pleno del Consejo iniciará la instrucción del procedimiento a iniciativa propia o a petición de la Junta de Gobierno de uno de los Colegios.

3.– La instrucción del procedimiento sancionador en sus plazos y secuencias se ajustará a lo determinado en los Estatutos del Colegio al que pertenezca el afectado.

*Artículo 16.–* Recursos.

1.– El Consejo conocerá y resolverá los recursos que se interpongan contra los actos y resoluciones de los Colegios que lo integran, aplicándose en lo que proceda la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, y las normas legales o reglamentarias que en tal sentido sean aplicables.

2.– Los actos y resoluciones del Consejo sujetos al derecho administrativo ponen fin a la vía administrativa previa a la jurisdicción contencioso-administrativa de acuerdo con lo dispuesto en la Ley reguladora de dicha jurisdicción.

*17. artikulua.*– Estatutuen aldaketa.

1.– Estatutuok aldatu egin daitezke hala eskatzen badu, gutxienez, Kontseiluaren Batzako kideen laurdenak edo elkargoetako Gobernu batzordeetakoren batek.

2.– Aldaketa eskabidearekin batera egiten den proposamena ere aurkeztu behar da, baita eragindako artikuluei eman nahi zaien idazketa ere.

3.– Estatutuak aldatzeko eskabidea horretarako deitutako Kontseiluko Batzan aurkeztu behar da, eta kide bakoitzari proposatutako testua helarazi behar zaio.

4.– Proposatutako aldaketa onesteko, Batzako kideen gehiengo osoa behar da eta, gainera, Elkargo bakoitzeko ordezkarietako baten aldeko botoa ere behar da. Aldaketa hori Eusko Jaurlaritzako sail edo departamentu eskudunek ere onetsi behar dute, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Idazkarian ere argitaratu behar da.

*18. artikulua.*– Kontseilua disolbatu eta likidatzea.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Industri Ingeniarien Kontseilua disolbatu egingo da hala erabakitzen badute Kontseilua osatzen duten elkargoetako bakoitzak, horretarako deitutako Ez Ohiko Batzar Nagusian.

2.– Kontseilua disolbatzeko erabakian Likidaziorako Batzorde bat eratzea erabaki daiteke. Batzorde horrek kide kopuru bakoitia izango du. Nolanahi ere, bai likidatzeko erabakian bertan, bai Likidaziorako Batzordeak, hori eratzen bada, geroago hartutako erabakian, likidatu ondoren geratzen diren ondasun edo ondare eskubideekin zer egin erabakiko da. Ondasun eta eskubideak Kontseilua osatzen zuten elkargoei esleituko zaizkie, eta horiek dagoeneko existitzen ez badira, lanbidearekin zerikusi zuzena duten elkarte, mutualitate, gizarte aurreikuspenerako erakundeei edo bestelako taldeei. Ondasun eta eskubideak esleitzerakoan, herri administrazioek emandako diru-laguntzen, funtsen edo baliabideen sistema erregulatzen duten arauek ezarritakoa betetzen dela zaindu behar da.

XEDAPEN GEHIGARRIA.

Estatutu hauetan aurreikusten ez denari dagokionez, tituludun lanbideei eta profesionalen elkargo eta kontseiluei buruzko azaroaren 21eko 18/1997 Legeak jasotako arauak eta elkargoetako estatutuetako antolamendurako eta funtzionamendurako arauak ezarriko zaizkio Kontseiluari.

*Artículo 17.*– Modificación de los Estatutos.

1.– Los presentes Estatutos podrán ser modificados a instancia de, al menos, una cuarta parte de los miembros del Pleno del Consejo o de alguna de las Juntas de Gobierno de los Colegios.

2.– La solicitud de reforma habrá de llevar consigo la propuesta sobre la que verse, con la redacción pretendida a los artículos afectados.

3.– La propuesta de modificación de Estatutos se presentará ante el Pleno del Consejo que será debidamente convocada al efecto, con remisión a cada uno de sus miembros del texto propuesto.

4.– Para la aprobación de la modificación propuesta se requerirá el acuerdo de la mayoría absoluta de los componentes del Pleno, siendo necesario además el voto favorable de algún miembro de la representación de cada Colegio y su posterior aprobación por las Consejerías o Departamentos competentes del Gobierno Vasco, con la debida publicación en el boletín Oficial del País Vasco.

*Artículo 18.*– Disolución y liquidación del Consejo.

1.– El Consejo Vasco de la Ingeniería Industrial quedará disuelto cuando así lo acuerden en Junta General Extraordinaria convocada especialmente para este objeto, cada uno de los tres Colegios que componen el Consejo.

2.– En el acuerdo de disolución del Consejo se podrá acordar la constitución de una Comisión Liquidadora, formada por un número impar de miembros. En todo caso, bien en el acuerdo de disolución, bien en posterior decisión de la Comisión Liquidadora, si se constituyese, se dará destino a los bienes o derechos patrimoniales resultantes, asignándose a los Colegios que integraban el Consejo, o, de estar extinguidos éstos, a aquellas Asociaciones, Mutualidades, Entidades de Previsión u otros colectivos directamente relacionados con la profesión, salvaguardando lo establecido al respecto en las normas reguladoras del sistema de subvenciones, fondos o recursos procedentes de la Administración Pública.

DISPOSICIÓN ADICIONAL.

En todo cuanto no esté especificado en estos Estatutos serán de aplicación al Consejo las normas contenidas en la Ley 18/1997 de Ejercicio de Profesiones Tituladas y de Colegios y Consejos Profesionales de la Comunidad Autónoma del País Vasco y las normas de organización y funcionamiento de los Estatutos de los Colegios.